



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 5a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, osasunaren arloko emaitzen ebaluazio-ereduari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, Oinarrizko Osasun Laguntzaren ereduari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exigitzen baitu Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza iker eta argitu dadin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Lege proiektua idazteko hartutako neurriei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Mikel Zabalzaren hilketari buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (5. or.).
- Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena dela-eta egindako balorazioari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).
- Galdera, enpresentzako, enpresa txiki eta ertainentzako nahiz autonomoentzako 11.000 milioi euroko laguntzen funts gehigarriari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (7. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek garraiorako eskubide osoa izatearen gaineko akordioa betetzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, aldi baterako enpresa-elkarte bati Garraioaren Hiriaren hirugarren fasea egiteko kontratua suntsiarazteari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, zero eta hiru urte bitarteko ikasleentzako haur-eskoletan eskolatzea areagotzeko plangintzari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, amiantoa kentzeko plan zuzendaria dela-eta hartutako konpromisoari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko jarduketei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (10. or.).
- Galdera, zentral hidroelektrikoak kultur intereseko ondasun deklaratzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (11. or.).
- Galdera, gurasoen koordinatzailearen figurari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txostenetik Atarés koronelaren aipamena kentzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren burutzari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”ri buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- Galdera, aztarnarien taldean armadako kideak (UME) sartzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruko inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Erronkariko eta Zaraitzuko inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Benecke Kaliko enpresari emandako laguntzei, dirulaguntzei eta zerga-onurei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (17. or.).
- Galdera, lanteri-ekoletako programen eta/edo prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jarduera azpikontratatzeari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Ogasunaren gaurkotze teknologikoari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernuaren laguntzei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroaren eta Iparralderen arteko sei muga-pasaguneak irekitzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruei eta estatutuei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, “Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektuari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako kastore-kudeaketari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (22. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, osasunaren arloko emaitzen ebaluazio-ereduari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, osasunaren arloko emaitzen ebaluazio-ereduari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzeta.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristi-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, osasunaren arloko emaitzen ebaluazio-ereduari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Bizi-itxaropena igo izanak eta osasunaren sektorean berrikuntza hainbeste garatu izanak baldintzatu egiten dute osasun-sistemen kaudimena. Pertsonak osasunaren arloan dauzkaten beharrizan konplexuetara egokitu behar dute osasun-sistemek, emaitzetara bideratutako finantzaketa areagotuta. Osasunaren arloan emaitzetara bideratutako ebaluazio eredueta Nafarroako Gobernuak darabiltzan politikak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, Oinarrizko Osasun Laguntzaren ereduari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, Oinarrizko Osasun Laguntzaren ereduari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzeta.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Oinarrizko Osasun Laguntzaren ereduari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Sistemaren ardatz den aldetik, gure osasun-sistemaren balio oso garrantzitsua da Oinarrizko Osasun Laguntza. Oinarrizko Laguntza Hobetzeko Plana proiektu berritzailea izan zen orain dela hamar urte baino gehiago, eta ilusio handia piztu zuen profesionalen artean. Beharrian

berriei egokitutako osasun laguntzan estrategia berririk ezarri ez denez, profesionalak gainezka eginda daudenez eta pandemian laguntza ez-presentzialeko eredu indiskriminatu bat inposatu denez, herritarrek eta profesionalak jasotzen duten osasun laguntzaren kalitatea okertzen ari

da. Nafarroako Gobernuak darabilen politika eza-gutu nahi dugu.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. “Bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, 2021eko otsailaren 28an baita.

2. Nabarmentzen ditu gaixotasun arraroak dituzten pertsonen eta haien familien konpromisoa, borroka eta batasuna, haientzako guztientzako balio eta itxaropen-sintoma nagusi baitira.

3. Aitortzen du gaixotasun arraroak dituzten pazienteen elkarleen funtsezko eginkizuna, pertsona horien beharrezanean erantzuteko eta eragin politikoa izateko tresna gako baitira.

4. Adierazten du ikerketarekiko eta zientzian inbertitzeko beharrekiko konpromisoa, gaixotasun arraroen diagnostikorako eta tratamendurako zailtasunei erantzuteko bidea baita.

5. Beharrezkotzat jotzen du osasungintza eta gizarte eraldatzeko lan egitea, diagnostikorako edo tratamenduetarako aurrerapenak eskuratzekoan ekitatea bermatze aldera.

6. Adierazten du beharrezkoa dela aurrerapau-soak ematea sareko lanean, ezagutzaren partekatzean eta koordinazio soziosanitarioan” (10-21/DEC-00011).

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exigitzen baitu Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza iker eta argitu dadin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak exigitzen du, Guardia Zibileko kapitain Gómez Nietoren eta orduan CESIDeko koronel burua zen Juan Alberto Pero-

teren arteko elkarrizketa baten audioa agertu ondoren, sakonki iker dadin audio horren edukia, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzari buruzko egia jakite aldera” (10-21/DEC-00012).

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Lege proiektua idazteko hartutako neurriei buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Lege proiektua idazteko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Mozioa 2020ko maiatzaren 21ean onetsi zenetik, Kultura eta Kirol Departamentuak zer neurri hartu ditu Kulturako lanbideei buruzko lege proiektua idazteko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Mikel Zabalzaren hilketari buruzkoa.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako galdera, Mikel Zabalzaren hilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabide batek Mikel Zabalzaren heriotza dela-eta 2021eko otsailaren 22an argitaratutako informazioak ikusita,

Nafarroako Gobernua zer zuzemen ari da egiten Barne Ministerioan Mikel Zabalzaren hilketa argitzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena dela-eta egindako balorazioari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena dela-eta egindako balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo Hualde andreak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” txostena aurkeztu berri du. Txostena Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak agindu zion egiteko Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko “Gregorio Peces Barba” Giza Eskubideen Institutuari.

Txostena argitara eman eta egun gutxi batzuk igarota, zenbait alderdi zuzendu behar izan dira, Alderdi Karlistak, Apirilaren 16a Elkarteak eta Ekintza Karlistako Taldeetako kide izandakoek egindako ekarpenak eta igorritako dokumentazio berria ikusi ondotik.

Bestalde, indarkeriazko ekintza ugari daude jasota eta dokumentatuta beste ikerlan batzuetan, lan honetan bazter uzten direnak.

Nafarroako Gobernua pozik al dago aurkeztu berri den txosten horrekin? Nafarroan eskuin muturraren indarkeria modu bete, zorrotz eta zintzo batez islatzen duela uste al du?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, enpresentzako, enpresa txiki eta ertainentzako nahiz autonomoentzako 11.000 milioi euroko laguntzen funts gehigarriari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, enpresentzako, enpresa txiki eta ertainentzako nahiz autonomoentzako 11.000 milioi euroko laguntzen funts gehigarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako kontseilari Mikel Irujo jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan otsailaren 24an, Estatuko Gobernuak –zehazki, Pedro Sánchez lehendakariak– enpresentzako, enpresa txiki eta ertainentzako nahiz autonomoentzako 11.000 milioi euroko laguntzen pakete gehigarri bat iragarri zuen Kongresuan.

Zer aurreikuspen darabilzue Nafarroak funts horretatik jasoko duen zenbatekoari dagokionez? Zer epetan eta nola kudeatuko, bideratuko eta taxutuko da, gure erkidego sektore kaltetuenek laguntza horiek baliatu ahal izan ditzaten?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek garraiorako eskubide osoa izatearen gaineko akordioa betetzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek garraiorako eskubide osoa izatearen gaineko akordioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldi honetako programa-akordioa sinatu duten talde parlamentarioek, “Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna” ataleko 50. puntuan, honako konpromisoa hartu dute: “Garraioa eskubide oso gisa aitortu ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta OLHko ikasleei. Salbuespenezko neurriak hartu beren ezaugarriengatik hala behar duten herrietan”.

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu eta zer jarduketa aurreikusten ditu, epe laburrean, konpromiso hori betetzeko eta eskola-garraioaren estaldura zabaltzeko, eta zer epetan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, aldi baterako enpresa-elkarte bati Garraioaren Hiriaren hirugarren fasea egiteko kontratua suntsiarazteari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, aldi baterako enpresa-elkarte bati Garraioaren Hiriaren hirugarren fasea egiteko kontratua suntsiarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2018an, Nasuvinsak suntsiarazi egin zuen 2006an aldi baterako enpresa-elkarte bati eginiko emakida, Iruñeko Garraioaren Hiriaren hirugarren

fasea egiteko, merkaturatzeko eta ustiatzekoa, hamabi urte hauetan “kontratua behin eta berriro eta larriki urratzeagatik” eta, horretaz gain, adjudikazio-hartzaileak sozietate publikoari kontzeptu desberdinengatik ordaindu gabeko zorrek 9,7 milioi euro egiten zutelako. Arrazoi horiek tarteko, sozietate publikoak egoera “jasanezintzat” jo zuen.

Urtebete geroago, Iruñeko 1. zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiak arrazoa eman zion Nafarroako Gobernuari, ulertu baitzuen enpresa adjudikazio-hartzaileak kanona ez ordaintzea aski arrazoi dela kontratua suntsiarazteko; izan ere, kontratua bertan behera ez uzteak ondorio larriak ekarriko lizkioke altxor publikoari. Hala, 2021etik aurrera 25 milioi euro ordaindu beharko zituzkeen lurzoruaren gaineko eskubideak berreskuratzeko, edo, hori egin ezean, emakida galgarri bat luzatu beharko zukeen.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

Zein egoera prozesaletan dago Iruñeko Garraioaren Hiriaren hirugarren fasea egiteko kontratua suntsiarazteko prozedura eta epaiaren betearazpena, eta zein da gaur egun lursail horien egoera?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, zero eta hiru urte bitarteko ikasleentzako haur-eskoletan eskolatzea areagotzeko plangintzari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, zero eta hiru urte bitarteko ikasleentzako haur-eskoletan eskolatzea areagotzeko plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du,

Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Alderdi Sozialistak beti agertu du 0-6 zikloko eskolatzearekiko eta, zehazki, 0-3 zikloko eskolatzearekiko konpromisoa.

Duela gutxi LOMLOE onetsi izanak eta lege hori indarrean sartzek badu eragina hezkuntza-ziklo horretan ere.

Gainera, duela gutxi kontseilari jaunak bere konpromisoa agertu du ziklo horren doakotasunerantz eta unibertsaltasunerantz urratsak egiteko.

Horregatik guztiagatik,

Zer plangintza dauka Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako haur-eskoletan eskolatzea areagotzeko eta doakotasunerantz eta unibertsaltasunerantz urratsak egiteko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, amiantoaren kentzeko plan zuzendaria dela-eta hartutako konpromisoari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako galdera, amiantoaren kentzeko plan zuzendaria dela-eta hartutako konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko elehun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019ko azaroaren 21ean, Gobernuak honela erantzun zion gure taldeak Nafarroan amiantoaren kentzeko Plan Zuzentzailea hedatzeko hurrengo urratsak direla-eta eginiko galderari:

“2019ko apirilean, Osasun Departamentuak, Nafarroako Gobernua ordezkatzuz, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean aurkeztu zuen

Nafarroan Amiantoa kentzeko Plan Zuzendaria, zeina parlamentu horrek 2017ko irailean eskatua baitzuen.

Testuinguru estrategiko horretan, hurrengo urratsa da Nafarroako errealitatera eta baldintzetara egokitutako ekintza-plana egitea”.

Beste hainbeste idatziko erantzunetan, Nafarroako Gobernuak ez du zehaztu zer urrats eginen dituen ekintza plana ezartzeko, ez zer epetan, ez eta zer konpromiso hartuko duen haren finantzaketarekin ere. Halaber, plan hori Europako finantzaketa lortzeko aurkeztu beharreko proiektuen artean sartzeko onetsitako ebazpena betetzeari buruz Gobernuak emandako azken erantzunean ere –haren edukia erabat kezagarria da– ez du ezer aipatu:

“Nafarroako Foru Komunitatean dagoen amiantoa edo asbestoa kentzeari dagokionez, Nafarroako Gobernua ohartzen da gaiaren garrantziaz eta bere kezka partekatzen du. Halaber, aurreko Parlamentuak hartutako konpromisoekin bat egiten du Nafarroako Gobernuaren 2019ko martxoaren 27ko Erabakiaren bidez, Nafarroan

Amiantoa kentzeko Plan Zuzendaria onesten baitu”.

Nafarroako Gobernuak ez du inongo konpromisorik agertzen plana betetzeko; are gehiago, ez du konpromisorik hartzen onetsitako ebazpena bete eta plana Europako proiektuen artean sartzeko, kasua bada, hurrengo hamarkadan beharrezkoa litzatekeen 200 milioitik gorako finantzaketa baliatzeko, Europako Parlamentuak 2013an emandako ebazpenean eta Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak 2014an emandako irizpenean ezarritakoarekin bat etortzeko, horien xedea baita 2032rako amianto guztia desagerraztea.

Horregatik guztiagatik, hauxe galdetzen diogu Gobernuko lehendakariari:

Zertan datza zehazki Nafarroako Gobernuak Nafarroan Amiantoa kentzeko Plan Zuzendariarekin duen konpromisoa legegintzaldi honetarako?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko jarduketei buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel

Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, Navarra Suma, PSN, Geroa Bai, Podemos eta I-Ek aldeko botoa emanda eta EH Bilduren abstentzioarekin, ebazpen bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzeko kultur intereseko ondasun deklaratu Oronozko eta Endarlatsako zentralak, uste baitu interes historiko eta artistikoa daukatela eta desagertzeko arriskuan daudela.

Hori dela-eta, talde parlamentario honek idatziz erantzuteko ondoko galdera aurkeztu du:

Zein izan dira, orain arte, Nafarroako Gobernuaren jarduketa zehatzak, eskatutakoa betetze aldera, eta zein abiarazi gogo dituenak eta noizko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, zentral hidroelektrikoak kultur intereseko ondasun deklaratzeari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, zentral hidroelektrikoak kultur intereseko ondasun deklaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel

Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, Navarra Suma, PSN, Geroa Bai, Podemos eta I-Ek aldeko botoa emanda eta EH Bilduren abstentzioarekin, ebazpen bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak premiatzeko kultur intereseko ondasun deklaratu Oronozko eta Endarlatsako zentralak, uste baitu interes historiko eta artistikoa daukatela eta desagertzeko arriskuan daudela.

Hori dela-eta, talde parlamentario honek idatziz erantzuteko ondoko galdera aurkeztu du:

Nafarroako Gobernuak zentral hidroelektriko gehiago kultur intereseko ondasun deklaratzeko asmorik edukiz gero, zein dira horiek?

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, gurasoen koordinatzailearen figurari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga andreak aurkezturiko galdera, gurasoen koordinatzailearen figurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen bidez, gurasoen koordinatzailearen figura sortu zen 77. legean, erabaki judizialen irismenetik harago doazen auzi gatazkatsuak bideratzen saiatzeko edo erabaki judizialak bete daitezen errazteko.

Zenbat jarduketa burutu ditu gurasoen koordinatzaileak legea indarrean sartu zenetik?

Zer ahalmen ari zaizkio ematen gurasoen koordinatzaileari?

Ezkontideetako bat familia- edo genero-indarkeria dela-eta kondenatua izan den genero-indarkeriako prozesu judizialean nahiz ezkontideen arteko krisi prozesuetan esku hartu al du gurasoen koordinatzaileak?

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du figura horri buruz?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an.

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, “Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txostenetik Atarés koronelaren aipamena kentzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, “Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txostenetik Atarés koronelaren aipamena kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txosteneko 30. orrialdean esaten da Atarés koronelak zenbait atxiloturen aurkako torturak zuzendu zituela. Txostena Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren webgunea dago eskuragarri. Informazio-iturri bakarra honako hau da: Díaz

Monreal, J.L. 2000. La historia olvidada. EGI en Nafarroa durante la década de los años sesenta (Ahaztuak 1936-1977, Bilbao). Liburu horretan, ETAREN hilketei buruz hitz egitean “exekuzio” hitza erabiltzen da. Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren webgunean esaten da “biktinek egia, justizia, memoria eta erreparazioa jasotzeko eskubidea” dutela. Atarés jauna ETAK hil zuenez gero, Nafarroako Gobernuak ba al du haren memoriarentzat iraingarria den aipamen hori kentzeko asmorik? Noiz kenduko du?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren burutzari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren burutzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten zuen 2020ko uztailaren 23an, idatziz erantzun zekion:

Uztailaren 1eko 46/2020 Foru Dekretuaren bitartez kendu egin dira Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeko berariazko betebeharrak. Zergatik?

2020ko irailaren 14an, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kon-

seilariak idazki bat igorri zuen –galderaren erantzuna, haren esanetan–, zeinetan honako hau zioen: “Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak beharrezkotzat jo zuen berariazko betekizunak kentzea Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutzari, haiek lanpostuaren egiazko beharretara egokitze aldera”.

Alde batera utzita hori berez ez dela erantzun bat eta hori adeitasun parlamentario ezaren adierazlea dela, ustezko “erantzun” hori itxuraz ez dator bat burutzak merezimendu-lehiaketa bidez betetzea ezartzen duen araudiaren espirituekin.

Izan ere, araudiaren arabera, betekizun eta kualifikazio profesional bat bete behar da burutza bakoitzerako, eta hori, arazoaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, soilik aldatzen ahalko da administrazio zuzenbideko arauak zorrotz betez, eta 39/2015 Legearen 35.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, berriz, betekizunak aldatzeko beharrezkoa izanen da aldaketaren zioak azaltzea.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Kendu egin dira Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeko aurretik ezarritako betebeharrak. Lanpostuaren zer beharizan direla eta egin da hori?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”ri buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”ri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Parlamentari naizen honek eskatutako informazio bati erantzunez, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak adierazi zuen ezen Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua” aurkeztuko duela Europako Next Generation EU funtsen deialdietara.

Proiektu horren dokumentazioan honako hau ageri da Nafarroako Berdintasunerako Institutua-

ren zigitupean. “Nafarroako Berdintasunerako Institutuak arreta-eredu berri bat aurkezten du, genero-ikuskeraren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik ateratzen diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako, hau da: La Morada”. Proiektua Santos kontseilariak aurkeztu zuen Berdintasun Ministerioan iragan azaroan.

Bestalde, labur bada ere, honako zerrenda honetan jasota ageri dira Podemos alderdi politikoaren egoitzen zenbait erreferentzia, denak ere “La Morada” deituak:

- La Morada Madrid.
- La Morada de Bilbao.
- La Morada de Sanse, San Sebastián de los Reyes.
- La Morada, Valentzia.
- La Morada, Getafe.
- La Morada, Murtzia.
- La Morada, Alcobendas.
- La Morada, Arganzuela.
- La Morada, Bilbo.
- La Morada, Andaluzia.

Hori dela-eta, talde parlamentario honek idatziz erantzuteko ondoko galdera aurkeztu du:

Zer irizpideren arabera erabaki da proiektuari izen hori ematea? Zer departamentuk hartu du erabakia? Nafarroako Gobernuak izen hori emanen die Nafarroaren funtsekin ordaindutako harrera-baliabideei?

Nafarroan, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, aztarnarien taldean armadako kideak (UME) sartzeari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, aztarnarien taldean armadako kideak (UME) sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2020ko irailaren hasiera aldean, Nafarroako Gobernuak formalki eskatu zuen Nafarroako Gobernuak lehen olatua bukatu zenetik aitzina abian jarritako aztarnarien taldean sar zitezen armadako kideak (UME).

Sei hilabete igaro dira, eta Osasun Publikoak hartutako prebentzio-neurriei eta herritarren

laguntzari esker kontrolatu ahal izan dira kutsatzei buruzko datuak. Une honetan, COVID-19aren eragina nahiko kontrolpean dago, murrizten jarraitzeko joerarekin, baldin eta deseskalatze-neurrietan azkarregi joaten ez bagara.

Halere, armadako kideek aztarnarien taldean lanean jarraitzen dute, gure ustez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek bete beharko lituzketen arreta-eginkizunen gaineko eskumenekin. Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Miaketa kudeatzeko ekipoa diharduten armadako kideak zer eginkizun ari dira betetzen? Txertoak jartzeko prozesuan parte hartzen ari al dira? Ba al daukate sarbiderik herritarren historia klinikoa?

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen mende al daude hierarkikoki? Zer ekipamendu ari dira erabiltzen (instalazioak, material informatikoa eta abar)? O-NOZena ala Armadarena da?

- Armadako kideek zer kostu ekonomiko ari dira eragiten? Nola ari da fakturatzeko edo konpentsatzeko kostu hori?

- Zer eragin-mugatik gora jotzen da beharrezkotzat armadako kide horien ekarpena?

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruko inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruko inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruan Nafarroako Gobernuak egindako inbertsioak, ekitaldiak eta zenbatekoak adierazita.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Erronkariko eta Zaraitzuko inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Erronkariko eta Zaraitzuko inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Erronkarin eta Zaraitzun Nafarroako Gobernuak 2010etik gaur arte egindako inbertsioak, departamentua, ekitaldia eta zenbatekoa adierazita.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun 2010etik gaur arte eginiko inbertsioak.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Benecke Kaliko enpresari emandako laguntzei, dirulaguntzei eta zerga-onurei buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Benecke Kaliko enpresari emandako laguntzei, dirulaguntzei eta zerga-onurei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan Benecke Kaliko enpresak, egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

- Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatik enkariak, inbertitzeagatik enkaria, bestelako enkariak...) eta zer zenbatekoak aplikatu ditu Benecke Kaliko enpresak, azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitopenetan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, lantegi-eskoletako programen eta/edo prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jarduera azpikontratatzeari buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko galdera, lantegi-eskoletako programen eta/edo prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jarduera azpikontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 30ean emandako 2933E/2019 Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen martxoaren 8ko 41E/2019 Ebazpena, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana. Ebazpen horren bidez,

dirulaguntzen deialdia onetsi zen 2019-2020-2021ean langabeei zuzendutako Lantegi eskoletako programak eta Prestakuntzako eta enpleguko programa integratuak gauzatzeko.

Zehazki, aldatetaren bidez atal bat gehitu zen, 4.a, deialdiaren 7. oinarrian. Hauxe: “Entitate horiek dirulaguntzaren xede den jardueraren zenbatekoaren 100eko 60rainoko portzentajea azpikontratzen ahalko dute”.

Horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

Ba al dago administrazio-prozedurarik zeinaren bidez Lantegi eskoletako programen eta Prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jardueraren parte bat azpikontratzea eskatzen edo komunikatzen duten?

Entitateek zer prozedura bete behar dute egindako azpikontratazioa kreditatzeko eta justifikatzeko? Zer agiri aurkeztu behar dute hori justifikatzeko?

2019an, 2020an eta 2021ean diruz lagundutako jarduera bukatu duten lantegi eskolen eta prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen zerrenda, zeinen entitateek kasuko justifikazioa aurkeztu baitute. Adierazi, kasuan-kasuan, zer pertsona, entitate edo enpresa azpikontratatu diren eta jardueraren zer portzentaje bete den sistema horren bidez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, Nafarroako Foru Ogasunaren gaurkotze teknologikoari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Ogasunaren gaurkotze teknologikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten dizkio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun ditzan:

1. Ogasun Departamentua teknologiaren alde tik gaurkotzeko egutegia.

2. Zer ekintza egingen da kredentzialen sistematik egokitzeko eta NAN+PIN identifikazio-sistema kentzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

3. Zer ekintza egingen da Foru Ogasuna “zero paper” ereduaren arabera eraldatzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

4. Zer ekintza egingen da Ogasun Departamentuaren konputazio eta biltegiatze ahalmena handitzeko zerbitzu handiko egunetan? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

5. Zer ekintza egingen da “laguntzaile birtualen” zerbitzua finkatzeko eta handitzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

6. Nola ustiatuko da adimen artifizialaren, big dataren eta datuen ingeniartzaren erabilera iruzurraren aurka borrokatzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernuaren laguntzei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernuaren laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Etxebizitzak zaharberritze aldera Nafarroako Gobernuak ezarritako laguntzak direla-eta, foru parlamentari naizen honek hau jakin nahi dut:

1. 2021ean nahiz hurrengo urteetan ezarri nahi diren zenbatekoen arloko berritasunak eta zaharberritzeetarako laguntza-formulak.

2. Azalpen-taula bat, non deskribatuko baitira, 2011tik aitzina urtez urte, zenbatekoen bilakaera eta etxebizitzak zaharberritzeko laguntza-motak.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroaren eta Iparralderen arteko sei muga-pasaguneak irekitzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroaren eta Iparralderen arteko sei muga-pasaguneak irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Aurreikuspenik al da Nafarroaren eta Iparralderen artean terrorismoaren aurkako borrokaren aitzakian itxitako sei muga-pasabideak irekitzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruei eta estatutuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruei eta estatutuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Kultura Departamentuak ba al du azterlanik edo txostenik Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruak eta estatutuak jorratzen dituenik?

Halakorik badago, hori igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektuari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, “Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

“Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektua aztertu ondotik –Nafarroako Berdintasunerako Institutuak Next Generation funtsetara aurkeztutako proiektuetako bat, 30 milioi euro inguruko aurrekontua duena, zeinetan sei autonomia erkidegok parte hartzen baitute–, honako hau jakin nahi dut:

Aurrekontu eta proiektu horren zer parte dagoen Nafarroari eta gainerako autonomia erkidegoei? Zer irizpideren arabera ezartzen dira zenbate-

ko horiek? Izan ere, 30 milioi euroko jarduketa baten inpaktuaren analisiari dagokionez, proiektuak berak diotenaren arabera, "proiektuaren inpaktuaren estimazioak azkentzen ari al dira une honetan.

Nafarroan, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Nafarroako kastore-kudeaketari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako kastore-kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

• Parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut Nafarroako kastore-kudeaketari buruz: zein da egoera? zeintzuk gertakariak? zer neurri ezarri dira?

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

